**Espediente zk./**Nº Expediente: 2020KPOL0011 **Erreg. data**/Fecha Reg:
**Erreg. zk** ./ Nº Registro: 000000
**Gaia/**Asunto: AIRE ZABALEAN HIRITARREN JARDUERAK EGITERAKOAN BETE BEHARREKO BALDINTZAK
**Eskatzailea**/Solicitante: ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)**/DNI(NIF): P2007200E
**Kokalekua/**Emplazamiento: ERRENTERIA

## DEKRETUA

### AURREKARIAK

COVID19ak sortutako osasun larrialdiaren aurrean, Errenteriako Udalak, espazio publikoaren erabilerari dagokionez, beste kontsiderazio batzuen gainetik, herritarren osasuna eta ongizatea bermatu behar dira. Xede horrekin, eta aire zabalean ekitaldiak antolatzeko interesa duten erakundeen ezagutzarako, horren inguruan dauden lege-eskakizunak eta udalak egiten dituen gomendioak jasotzen dituen hurrengo dokumentua idatzi da: *“Covid-19. Aire zabalean hiritarren jarduerak egiterakoan bete beharreko baldintzak”.*

COVID19ak sortutako egoerari aplikatu beharreko araudia aldakorra denez, hemen jasotzen diren gidalerroak ekitaldia egiteko unean indarrean dagoen araudira egokitu beharko dira.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

* 21/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 9koa, COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteena.

* 14/2020 Dekretua, ekainaren 18koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez deklaratzen baita deseskaladarako planaren 3. fasea gainditu dela. Horrenbestez, indargabetuta geratuko dira alarma-egoeraren esparruan hartutako neurriak, eta 2020ko ekainaren 19ko 00:00etan hasiko da «normaltasun berria».

* Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-

## DECRETO

### ANTECEDENTES

Ante la emergencia sanitaria generada por el COVID19, el Ayuntamiento de Errenteria considera que en cuanto a la utilización del espacio público, debe garantizarse, por encima de otras consideraciones, la salud y el bienestar de la ciudadanía. Con ese objetivo, para conocimiento de las entidades interesadas en organizar actos en el espacio público, se ha visto la necesidad de redactar el documento “*Covid-19. Requisitos a cumplir para la realización de actividades ciudadanas al aire libre”,* donde se recogen las exigencias legales existentes al respecto, así como las recomendaciones que realiza el Ayuntamiento.

La normativa aplicable a la situación generada por COVID19 es cambiante, por lo que las directrices que se recogen han de acomodarse a la normativa aplicable en el momento de la celebración de evento.

### LEGISLACIÓN APLICABLE

* Real Decreto-ley 21/2020, de 9 de junio, de medidas urgentes de prevención, contención y coordinación para hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19.

* Decreto 14/2020, de 18 de junio, del Lehendakari, por el que se declara la superación de la fase 3 del Plan para la desescalada, se dejan sin efecto las medidas adoptadas en el marco del estado de alarma y se establece la entrada en la nueva normalidad a partir de las 00:00 horas del día 19 de junio de 2020.

* Orden de 18 de junio de 2020, de la Consejera de Salud, sobre medidas de prevención necesarias para

ESKUb98e5200-a8bf-4611-9148-73e13633463f

krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero.

Horregatik guztiagatik, alkate honek, Aholkulari Juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin, esleituta dituen eskumenak baliatuz,

**EBATZI DUT**

1.- Onespena ematea dekretu honi eranskin moduan agertzen den COVID 19: AIRE ZABALEAN HIRITARREN JARDUEARAK EGITERAKOAN BETE BEHARREKO BALDINTZAK dokumentuari, bertan Errenteriako espazio publikoan ekitaldiak antolatzeko interesa duten erakundeek bete behar dituzten gidalerroak jasotzen direlarik.

2.- Ebazpen honen berri eman udaleko sail guztiei, udalaren webgunean argitaratu eta jakinarazi aire zabalean ekitaldiak antolatzen ohi dituzten erakunde desberdinei.

Errenteria, 2020ko uztailaren 8a

hacer frente a la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, una vez superada la fase 3 del Plan para la Transición hacia una Nueva Normalidad.

Por todo ello, esta alcaldesa, con la conformidad dada por el asesor jurídico a la propuesta de decreto que consta en el expediente, en uso de las atribuciones que tiene conferidas,

**RESUELVO**

1.- Aprobar el documento COVID-19: REQUISITOS A CUMPLIR PARA LA REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES CIUDADANAS AL AIRE LIBRE, que se adjunta como anexo al presente decreto, donde se recogen las directrices a cumplir por aquellas entidades interesadas en organizar actos en el espacio público de Errenteria.

2.- Notificar esta resolución a las diferentes asociaciones que vienen organizando actos en el espacio público, publicarla en la página web municipal y ponerla en conocimiento de los diferentes departamentos del Ayuntamiento.

Errenteria, 8 de julio de 2020

Alkatea / Alcaldesa

Aizpea Otaegi Mitxelena.

ESKUb98e5200-a8bf-4611-9148-73e13633463f

## ERANSKINA / ANEXO

**COVID-19. AIRE ZABALEAN HIRITARREN JARDUERAK EGITERAKOAN BETE BEHARREKO BALDINTZAK.**

Bizitzen ari garen osasun larrialdiaren aurrean, Errenteriako Udalaren ustez, espazio publikoaren erabilerari dagokionez, beste kontsiderazio batzuen gainetik, herritarren osasuna eta ongizatea bermatu behar dira. Dokumentu honen helburua da, espazio publikoan ekitaldiak antolatzeko interesa duten erakundeek horren inguruan dauden lege-eskakizunak eta Udalak egiten dituen gomendioak labur jasotzea, horren berri izan dezaten.

Nolanahi ere, COVID19 bidezko kutsatzeei buruzko egoera aldakorra denez, aplikatu beharreko araudia ere aldakorra da, eta hemen jasotako gidalerroak ekitaldia egiteko unean dagoen araudira egokitu beharko dira. Gidalerro horiek, gaur egun, hauek dira:

- Madalen jaien egunetan, uztailaren 21etik 25era, ez da baimenduko kale jarduerarik.
- Jarduera egiteko erabiliko den espazioak mugatuta egon beharko du.
- Jendea sartzeko leku bat eta irteteko beste bat ezarriko dira, ahal izatekotan.
- Ikusleek eserita egon beharko dute. Eserlekuak zenbakirik gabe aurrez esleituko dira. Norbaitek bere eserlekua uzten badu ekitaldiak irauten duen bitartean, ezin izango du beste inork hartu. Eserlekuak gutxienez 1,5 metroko pertsonarteko distantzia mantentzeko moduan jarriko dira. Ezin denean, derrigorrezkoa izango da maskara erabiltzea. Hala ere, bizikidetza-unitate berekoak diren pertsonak elkarrekin eseri ahal izango dira.

Ekitaldia egiteko eskabidearekin batera, krokis bat aurkeztu beharko da, erabiliko diren eserlekuen eta gainerako elementu fisikoen kokapena eta jendearen sarrera eta irteera lekuak jasotzeko.

**COVID-19. REQUISITOS A CUMPLIR PARA LA REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES CIUDADANAS AL AIRE LIBRE.**

Ante la emergencia sanitaria que estamos viviendo, el Ayuntamiento de Errenteria considera que en cuanto a la utilización del espacio público, debe garantizarse, por encima de otras consideraciones, la salud y el bienestar de la ciudadanía. El objetivo del presente documento es resumir, para conocimiento de las entidades interesadas en organizar actos en el espacio público, las exigencias legales existentes al respecto, así como las recomendaciones que realiza el Ayuntamiento.

Ello sin perjuicio de que, toda vez que la situación relativa a los contagios por COVID19 es cambiante, la normativa aplicable también lo es y las directrices aquí recogidas deberán acomodarse a la normativa existente en el momento de la celebración del evento. Dichas directrices son, actualmente, las siguientes:

- Durante los días de Madalenas, del 21 al 25 de julio, no se va a autorizar ninguna actividad en la calle.
- El espacio en el que se realiza la actividad deberá estar acotado.
- Se procurará establecer un lugar para la entrada del público y otro para la salida.
- Las personas espectadoras deberán estar sentadas y se requerirá asiento preasignado, sin numerar. Si alguien abandona su asiento durante el evento, dicho asiento no podrá ser ocupado por otra persona. Los asientos deberán estar ubicados de forma que se asegure una distancia interpersonal de, al menos, 1,5 metros. Cuando no sea posible, el uso de mascarilla será obligatorio. No obstante, las personas que pertenezcan a la misma unidad de convivencia podrán sentarse juntas.
- La solicitud de realización del evento deberá adjuntar un croquis en el que se recoja la ubicación de los asientos y demás elementos físicos que se vayan a utilizar, así como de los lugares de entrada y salida del público.

ESKUb98e5200-a8bf-4611-9148-73e13633463f

- Jende-pilaketak saihesteko, ikusleei eserlekuetara behar adinako aurrerapenaz sartzeko aukera emango zaie.

- Bermatu beharko da baldintza horiek betetzen direla lehenengo ikusleak bertaratzen hasten diren unetik azkenak barrutitik irten arte.

- Erakunde antolatzaileari, eta jardueraren garapenaren erantzule bakarra izanik, dagokio baldintza horiek betetzen direla kontrolatzeko behar adina giza baliabide eta baliabide material jartzea. Ekitaldia egiteko eskabidean zehaztu beharko da, izen-abizenekin, nor edo nor arduratuko den horretaz, bai eta bere telefono-zenbakia ere. Pertsona horiek zenbaki horretan aurkitzeko moduan egongo dira aurreikusitako muntaketa amaitzen denetik desmuntaketa amaitzen den arte. Pertsona horiek bertan egon beharko dute ekitaldi osoan.

- Gomendatzen da gel hidroalkoholikoen edo desinfektatzaileen banagailuak jartzea esparruaren sarreran eta irteeran, Osasun Ministerioak baimendutako eta erregistratutako eragin biruziduna dutenak.

- Jarduerak itxitura duten aire zabaleko espazio publikoetan egitea gomendatzen da, horrek edukiera kontrolatzen eta akotatutako espaziotik kanpo ikusleak zutik gelditzea saihesten laguntzen baitu. Espazio hauek izan daitezke:

- Miguel Irastorza futbito zelaia.
- Fanderiako Futbito zelaia edo tenis pista.
- Pontikako Kirolgunea edo pilotalekua.
- Beraungo frontoia edo futbol zelaia.
- Koldo Mitxelena Ikastetxeko patioa.

- Ez da baimenduko ikuskizun ibiltariak egitea.

- Con el fin de evitar aglomeraciones, se recomienda que las personas espectadoras puedan acceder a sus asientos con suficiente antelación.

- El cumplimiento de dichas condiciones deberá garantizarse desde el momento en que empiecen a acudir las primeras personas espectadoras hasta que las últimas hayan abandonado el recinto.

- Corresponde a la entidad organizadora, como única responsable del desarrollo de la actividad, poner los medios personales y materiales suficientes para garantizar el control del cumplimiento de dichas condiciones. La solicitud de realización del evento deberá concretar, con nombre y apellidos, la persona o personas que se responsabilizarán de ello, así como su número de teléfono. Esa/s persona/s estará/n localizable/s en dicho número desde el momento en que se termine el montaje previsto hasta la finalización del desmontaje. Deberá/n estar presente/s durante todo el evento.

- Se recomienda colocar, a la entrada y la salida del recinto, dispensadores de geles hidroalcohólicos o desinfectantes con actividad virucida autorizados y registrados por el Ministerio de Sanidad.

- Se recomienda que las actividades se realicen en espacios públicos al aire libre con cerramiento, ya que ello facilita la labor de control del aforo y evita que puedan ubicarse más espectadores fuera del espacio acotado que permanezcan de pie. Los espacios pueden ser:

-Campo de futbito Miguel Irastorza.
-Campo de futbito o pista de tenis de Fandería.
-Zona deportiva o frontón Pontika.
- Frontón o campo de futbol de Beraun.
- Patio Colegio Koldo Mitxelena.

- No se autorizará la celebración de espectáculos itinerantes.

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUb98e5200-a8bf-4611-9148-73e13633463f**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Titulo:** | 2020KPOL0011-DEKRETUA/DECRETO |
| --- | --- |

Sinatzailea 1/Firmante 1: AIZPEA OTAEGI MITXELENA - 44137736T
Data/Fecha: 2020/07/08 12:14:28